

Mondragon Unibertsitateko Oñatiko campusak Gizarte Erantzukizunari buruzko jardunaldiak antolatu ditu, tokiko arazoei benetako irtenbideak emateko.

2013/03/07

Oñatiko benetako arazoei irtenbideak bilatzeko xedez, 130 ikaslek gogoeta eta lan egiten jardungo dute gaur eta bihar, gizarte-erantzukizunaren ikuspegi batez.

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak Oñatiko campusean antolaturiko gizarte-erantzukizunari buruzko jardunaldietan honako ikasle hauek hartuko dute parte: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Graduko ikasleek –50 baino gehiago–, Txantxiku Ikastolakoek –30 baino gehiago–, Elkar Hezikoek –20 inguru– eta Zuazola-Larrañakoek –20 inguru–.

Jardunaldiak hainbat asmo ditu: adin desberdinetako pertsonen arteko gizarte-koheretza bultzatzea, partaideen artean esperientziak trukatzeko, eta benetako arazoei elkarlanean irtenbideak eraikitzekeo kompetentziak eskuratzea. Jardunaldia bukatzeko, ikasleek herriko benetako arazoei irtenbidea emateko aurkezturiko proiekturik hoberena aukeratu da.

Proposamen hoberenaren saria

Jardunaldiak bat datoz Mondragon Unibertsitateak gizartea eraldatzeko duen konpromisoarekin, eta ikasleek gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren alorreko benetako arazoetan oinarrituz lan egitea bilatzen du, horiei irtenbidea eskaintzeko.

Jardunaldia gaur, martxoak 7, 09:00etan hasiko da, eta lehen zeregina gizarte-eginkizunaren esanahiari buruz hausnartzea izango da. Hala, irizpide etikoak ezarriz ingurunean dauden erroak nagusiei erantzuteko moduz arituko dira ikasleak.

Gero, 10:00etan, diziplina anitzeko lan-taldeak osatu, eta tokiko arazo nagusiak, sozialak, ekonomikoak nahiz ingurumenekoak, aztertuko dituzte. Jardunaldiek arazo horiei erantzuna emateko irtenbideak bilatzea dute helburu, eta sortuko diren taldeek proposamenak eraikiko dituzte.

Eta bihar, martxoak 8, arlo bakoitzean planteatutako arazoen arabera sortzen diren ideiak azalduko dituzte ikasleak. Hala, talde bakoitzaren proposamena 10:30etik 13:00etara bitartean aurkeztuko dira. Hiru finalistak (arlo bakoitzeko bat) sarituko dira. Azkenean, 13:00etatik 13:40era bitartean, arlo bakoitzeko irabazleak aurkeztu ondoren, proposamenik hoberena aukeratu da eta talde irabazleari sari berezia emango zaio.

Ekitaldiaren argazkiak ikusteko:

<http://www.flickr.com/photos/enpresagintza/sets/72157632940995202/>

